

Truke-aplikazio batean oinarrituko da proiektua, eta hainbat erabiltzailearen arteko interakzioa eskainiko du, haien artean **zerbitzuak trukatzeko**. Modu errazean, erabiltzaile batek zerbitzu bat bilatu edo eskaini ahal izango du, aplikazioaren bidez, eta zerbitzu hori bera eskaintzen edo bilatzen duten erabiltzaileak topatzeko aukera izango du.

Zerbitzua **edozein “mesede”** izan daiteke, ordenagailu hondatu bat konpontzetik maskota bat zaindu arte. Modu honetan, erabiltzaileek beraien artean zerbitzuak trukatu ahal izango dute, esaterako batak ordenagailu hondatua konponduko du, eta besteak maskota zainduko dio zenbait egunetan.

Erabiltzaileak zerbitzu hori eskaintzen duen norbait aurkitzen badu, txat bat irekitzeko aukera egongo da, muturretik muturrera zifratua, betiere erabiltzaileen pribatutasuna gordez. Horrela, hainbat erabiltzailek elkarreraginean jardun ahal izango dute, elkarren artean **zerbitzuak trukatzuz modu pertsonalean**.